

LORIK EGITEN EZ DUTENAK NASH

DOLORES
REDONDO



erein

LORIK EGITEN EZ DUTENAK NASH



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko ekainean

Jatorrizko izenburua:

Las que no duermen NASH

Sailaren eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Kartografiak:

Iván Ianda | Erein argitaletxea

Maketazioa:

A. Beltza | Erein argitaletxea

Itzultzailea:

Miren Arratibel Garmendia | Rosetta TZ

© Dolores Redondo Meira, 2024

Pontas Literary & Film Agency-ren adostasunarekin

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-058-2

L. G.: D 653-2025

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com

LORIK EGITEN EZ DUTENAK NASH

DOLORES
REDONDO

Itzulpena:
Miren Arratibel Garmendia
RosettaTZ

erein

Leirerentzat, bizia eman didalako.
Eduardorentzat, hura nola lotu bila jarraitzen baitu.
Naiarentzat, danbor bat eskaini izanagatik.
Javirentzat, gau hartan izan baitzituen begiak urdin.
Nire ahizpa Estherrentzat, geratzeagatik.

Nire sorginentzat, nire akelarrearentzat:
Silvia, Paz, Sonia, Sabrina, Alba eta Ester.

—Baina, neskato, sagar hau ez da besteak bezalakoa... —esan zuen atsoak.
—Ez? —galdetu zion, Edurnezurik.
—Ez, sagar honek magia du-eta.
—Magia du?

Walt Disney, *Edurnezuri*

Hildakoek ahal dutena egiten dute.

Engraxi Salazar


Basoa da ederra, laiotza eta malenkoniatsua.
Baina behar ditut miliak ibili eta promesak bete,
lo egin aurretik.

Robert Frost

Bailara Lasaiak

*Lorik egiten ez dutenak NASH «Bailara Lasaiak» tetralogia-
ren parte da; Uholdearen zain izan zen saileko lehen eleberria,
eta hurrengo bietan izango du jarraipena.*

Kantauri itsasoa



BORTZIRIAK
BAILARA

Lesaka

Doneztebe

BAILARA
LASAIAK



MALERREKA
BAILARA



Biarritz

FRANTZIA

Donibane Lohizune

Pirinioak

Urdazubi

BAZTAN
BAILARA

Erratzu

Elbete

Elizondo

Oronoz

Gaztelu
(egarreako
leizea)

N-121-A



Murrietaren
etxea

Foru-polizia

Txokoto
taberna

Biblioteka

Trinkete
ostatua

Engraxiren
etxea

Txokotoko
zubia

ELIZONDO

ELBETE

Frontoia



Elbeteko
eliza



Hilerria



Mitxelena-etxea
ehortzetzea




Jarola
jauregia



Salomeren
etxea



Aitarekin telefonoz
hitz egiten duen
emakumea



Psikologo forentsearen lana ez da beti izaten premiazkoa, baina ezinbestekoa gertatzen da batzuetan. Igarotako denbora, hilotzaren egoera edo hilotzik eza direla-eta autopsia mediko-legala heriotza baten etiologia zehazteko aski ez den egoeretan esku hartu ohi du. Haren helburu nagusia izaten da «NASH» kodea aplikatzea, aukerarik izanez gero, kode horren arabera zehazten baita kausa naturalek, istripuek, suizidioak edo homizidioak eragina den heriotza. Kausa horien ingelesezko inzialek osatzen dituzte kodearen siglak (*natural, accident, suicide* eta *homicide*).

Euskal Herriko elezahar batek dioenez, Lurreko haitzulatorik sakonenetan bizi dira infernuetako zezen gorriak, deabruzko zaindaria, beren basatasunaz begiratzen dituztenak hango altxorak, haietan lurperatutako sekretuak eta azpimundurako sarbidea. Izaki horiek omen dira toki haien jabe zilegiak, bertan harrapatuta gelditutakoen arimak edo Ama Lurrak gidatutako espiritu zaindaria.

Ilunak harrera egin zion emakumeari erroitzera amiltzean, entzun ere uste izan zituen piztia gorri haietako baten orro ozenak barrunbetik. Segundo bat besterik ez zen izan, bultza egiten zioten eskuak sentitzeari utzi zion istantean, zehazki, eta aurpegiaz jo aurretik osineko hormek haren sarrerako ahoan eratzen zuten granitozko sabela. Gero, jausi egin zen. Horma meharren artean amildu zen haren gorputza, indarge, harkaitzak joz han eta hemen eta larrua urratzen zitzaiola marruskaduraren eraginez istantean kauterizatuta geratu ziren piltzarretan. Jaitsiera gertatu zitzaion estira amaigabea, sumatzen baitzuen nola hausten zihoazkion hezurak jausi ahala. Biriketan airerik ez, eta ez zeukan oihu egiterik ere. Mina zuen minaren ondotik, eta, iluntasun erabatekoa gorabehera, begien aurrean argi gorri izugarri bat lehertzen ikusi zuen bere gorputzak lurra jo zuenean.

Haitzuloan, dena zen isiltasuna eta belztasuna. Kostatu zitzaion bereiztea buruz gora edo buruz behera gelditu zen, eta,

eginahalak eginda ere, burrunba gero eta ozenago batek eragotzi zion bere bihotzaren taupada-hotsak beste ezer entzutea, erritmoz kanpo, barne-belarrian. Hotza sentitzen zuen bere gorputz-ataletan gora, tapaki busti oso astun bat bailitzan, eta ulertu zuen hilzorian zela. Berriro kontzentratu zen, beldurrari aurre eginez eta entzuteko eginahaletan. Isiltasuna, isiltasun erabatekoa. Ama Lurrari eskerrak eman zizkion horrek esan nahi zuenagatik; eta, heriotza besarkatzean, azken indar-printzak baliatu, eta eskua altxatu zuen, madarikazio bat hedatzeko hilobi izango zituen horma haietatik gora, bere samin guztiaz, gorroto guztiaz, indar guztiez.

2020ko otsailak 29

Larunbata

Nash Elizondo doktorea, gorputz osoko uhaleria estutu, eta atzera jiratu zen, Gabrielelek mosketaira lotu zezan, bere uhaleria egiaztatu ondoren. Leizearen aho irekira begiratu zuen. Lurrean ezkutatutako zeharrebaki bat, luzexka, bi metro pasatxo zabala eta hiru bat luzea. Urrunxeagotik, oharkabean igaro izango zatekeen bidearen albo bateko mendi-hegal makuurrean. Amildegiaren ertzeko pago dotore batek erakartzen zuen arreta guztia, adarrak zerurantz luzaturik eta sustraiak leizean barneraturik. Zuhaitza ikusteko gora begiratu, eta belarri atzean jarri zituen irratiko entzungailua eta ile-xerlo gorrixka bat, ilea biltzeko orraztu zuen mototsetik ihes egin ziona. Azken orduetan, haize bizi samar eta urez kargatu bihurtzen hasita zegoen goizean goizeko brisa leuna, eta zamalka zihoan Kantauri itsasotik mendi-gainetan, euria iragarritz eta Malerreka bailarako zeruak ilunduz.

Pentsakor begiratu zien trekkingeko bere botei eta bidezidorrean gelditutako ibilgailuaren atzeko ate irekiari. Handik kilometro batzuetara aparkatuta utzi zuen bere Ford Mustanga. Bazekien, goizean garajetik atera zuenetik bertatik, gogotik damutuko zitzaiola, azkenerako, autoa landara eraman izana; harribitxi hura ez zen pista eta bidexketarako egina. Hala ere, azkenaldian hain aukera gutxi izan zituen distantzia luzeak egiteko, non Donostiatik Gaztelura joatea iruditu baitzitzaion

alferrik galdu ezinezko aukera. Zabaldian utzi zuen, herriko iturriaren eta latsarri zaharren aldamenean.

Pista amaitzen zen tokirainoko bide-tartea taldekoekin egin zuen, Land Roverrean, zeina baitzen ezinbestekoa leizearen ahoraino iristen zen asfaltatu gabeko azken tartean. Ibilgailuaren atzealde irekiari erreparatu zion; soka, aldamio, txirrika eta trokolaz gainezka zegoen, eta bazen karpa tolesgarri bat ere, ezustekoan euria hasiz gero erabiltzeko eraman ohi zutena. Hodei nahasizko zerurantz jaso zituen begiak, litekeena zen eguna amaitzerako karpa erabili behar izatea. Horrek berriro zalantza eginarazi zion bere oinetakoen egokitasunaz. Besteek, bai, jantzita zeramatzaten koba edo haitzulo ezezagunetara sartzeko erabili ohi zituzten gomazko botak. Berriro begiratu zien bere botei, trekkingekoei, pentsakor, eta, ia aldi berean, mugimendu iheskor bat sumatu zuen sasitzan, muinoan gora.

Lankideetako bat aurrean paratu zitzaion, irribarretsu. Hilabete zen kide hark Kondairak taldearekin bat egin zuela, eta aurkikuntza itzela izan zen. Antropologiako azken urteko ikaslea, eskalatzen oso trebea ez, baina aditua telekomunikazioetan. Lehen irteera zuen talde osoarekin, eta, ordurako, begi-bistakoak ziren irrati-ekipoaren hobekuntzak. Nashek erreparoak zituen. Mutila behartuta bezala zebilela zirudien, atsegina izaten gehiegi saiatuko balitz bezala. Beste bi kideek nola begiratzen zioten ikusita, ez zuen batere zalantzarik izan hasiberri-saria ordainaraziko ziotela unereren batean.

—Zenbatu hamar arte, Elizondo doktorea: mikroa probatzeraz goaz.

—Bat, bi, hiru, lau, bost, entzuten didazu, Mikel?

—Primeran entzuten dizut —erantzun zuen, irribarretsu.

Beste biak Julio eta Xabier ziren. Julio zen zaharrena, berrogeita hamar urte betetzear, historialaria, etnologoa eta hizkuntzalaria, Land Roverraren jabea ez ezik. Xabier, taldeko

beteranoa, berekin batera, arkeologoa eta arlo hartan aski eza-
guna. Haren pare bat lan nahiko on irakurria zen Nash. Bi ur-
tetik gora zeramatzaten mendira irteten, eta ongi ezagutzen
zuen Nashek: ez zeukan arkeologia eta ekipo teknikoa beste
hizpiderik, eta segurtasunarekin obsesionatuta zegoen. Iru-
ditu zitzaion apur bat erretxinduta egoteko itxura zuela Xa-
bierrek; beharbada, Nash han egon ez balitz bera aukeratuko
zutelako Gabrielekin leizera jaisteko.

Gabrielek gerrikoan lotu zituen karburozko Fisma kriseilu
zahar bat, tradizioz eramaten zuena, segurtasunagatik baino
gehiago, Hilti zulagailu bat eta poltsa bat, parabolt barauts eta
torlojuekin, zeinak erabiliko baitzituzten ibilbidea ziurtatzeko.
Biek kaskoak lotu, eta burua behera makurtuz egiaztatu zuten
kopetako argia ongi zebilela.

—Prest? —galdetu zion Gabriele.

—Aurrera.

Gabrielek bi minutu eskas behar izan zituen lehen torlo-
jua leizearen ahoan finkatzeko. Nash sarreraren ondoan be-
launikatu zen, eta, barrura sartu aurretik, kobaren ahoan ire-
kitako tripode bati lotutako trokolatik zintzilik zeuden sokak
egiaztatu zituen, haiei leun tira eginez.

Ur-tanta bat sentitu uste izan zuen musuan, aurpegia ze-
rurantz jaso, eta, bigarrenez, norbait ikusi izana iruditzen zitzaion
osinetik hurbil hazten ziren sasien artean, baina haize gero eta
indartsuagoak mugiarazitako adarrak besterik ez ziren. Nahi
gabe, bekozkoa jarri zuen.

Urduritasun hura buru gainean zintzilik zituen sokek era-
gina zelakoan, lasaitzen saiatu zen Xabier.

—Hiru bider egiaztatu dut material guztia, ez kezkatu,
Elizondo doktorea.

—Seguru nago, Xabier.

—Nik ere egiaztatu dut ekipoa, ez du ezerk huts egingo,
Nash doktorea —erantsi zuen Mikelek.

Nashek bekain bat jasota begiratu zion, baina ez zuen ezer esan. Haitzuloaren aho ilunean behera irristatu zen, Gabrielen atzetik.

Xabierrek begia kliskatu zion Juliori, eta honek baiezkoa eginez erantzun zion, irribarrea disimulatu nahian; Nash begibistatik desagertu arte itxaron, eta antropologoari galdetu zion:

—Ergela zara edo zer arraio?

—Zer egin dut? —galdetu zuen Mikelek, harrituta.

—Nash deitu diozu —erantzun zuen Juliok, pagoan bermatuta zigarroa erretzen.

—Denek deitzen diote horrela. Ez al du, ba, horrela izena? Nash Elizondo, hori dio haren fitxak —erantzun zuen, nahasturik.

Xabierrek ezetz egin zuen buruaz, sinesgogor.

—N. Elizondo doktorea jartzen du. Ezizen moduko bat da Nash.

—Baina horrela esaten entzun izan dizuet... —buru egin zion Mikelek, urduri.

—Ez haren aurrean, ordea —azaldu zuen Juliok, Xabierrek baietz egiten zuen bitartean.

—Ez dut ulertzen. Iraina al da? Txantxa bat?... —esan zuen sorbaldak jaso—. Jende gehiagori ere entzun izan diot...

—Egin kasu, ez zarete zuk hari horrela esateko bezain lagunak.

—Eta nola du, ba, izena?

—Zuretzat, Elizondo doktorea.

—Arraroa gertatzen zait hainbestearainoko formalitatea. Zer izango ditu, hogeita hamaika? Eta neska puska da, gainera... Badakit irakaslea dela, baina Elizondo doktorea...

—Abisatu dizugu: Nash, ezta okurritu ere —amaitu zuen Xabierrek.

—Baina zer esan nahi du?

—Kode bat da, nolabait esateko...

—Eta ez didazue azalduko, ezta?

—Tira —esan zuen Juliok, amore emateko plantak eginez, atzera jiratu eta barreari ezin eutsirik—, esaiozu zuk, berriro hanka sartu eta doktoreak pikutara bidali baino lehen.

Mikel zurbildu egin zen.

—Antropologo forentsea zara, ez? —galdetu zion Xabierrek.

—Azken urteko ikaslea, baina Biologiakoa, ez forentsea.

—Hala ere, jakin beharko zenuke.

—NASH auzitegi medikuntzako kode bat da, auzitegi medikuntzako txostenetan heriotzaren kausa zehazteko modua. NASH siglak *natural*, *accident*, *suicide* eta *homicide* ingelesezko hitzen inzialei dagozkie. Benetan iruditzen zaizu norbaitek izen hori eduki lezakeela?

Mutilak kezkatu putz egin zuen, buruaz ezezka.

Leizearen ahoan sartu eta zultzeko makinaren zaratak dena bete orduko utzi zion Nashek haiei entzuteari.

Aurrerantz makurtu zen, eta bizi-bizi jaisten ikusi zuen Gabriel. Eskalatzaile, historialari eta antropologo aparta zen, baita bere laguna ere. Urtebete zeraman Euskal Herriko Unibertsitatean eskolak ematen, ordezeko irakasle gisa, eta unibertsitate hartan zebilen bera ere, Psikologia Forentseko bere espezialitatea erakusten. Elkar ezagutu zutenean, taldean sartu zuen Gabriel, giza bizitokien arrastoen bila, eta, batez ere, eskualde bakoitzeko mito ezagunenaren sustrai antropologiko eta sozialak argitzeko Euskal Herri osoan egiten zituzten irteeretarako.

Gabriel bereziki hunkituta zegoen leize harekin, kobrezko gopor bat topatu baitzuten —artean, datatu gabea—, bai eta balio handirik ez zuten erromatar garaiko txanpon batzuk ere, osinaren sarbidearen inguruan egindako aurretiko indusketetan. Nash saiatu zen eztabaida saihesten, inor ez zapuztearren, baina ez zen ezohikoa txanponak, goporrak nahiz intxaur, irin edo sagar hazien arrastoak zituzten flaskoak topatzea inguru hartan. Aspaldi, kristautasunaren aurreko garaian, bazuten bailara

haietan erlijio bat, eta, erlijio haren arabera, mendietako harpetan eta lurraren bihotzerainoko leizeetan bizi zen Mari, jainkosa nagusia. Zenbait antropologok, hala nola Jose Migel Barandiaranek eta Julio Caro Barojak, aipatu zituzten sinesmen hari loturiko jarduerak, baita argazki bidez dokumentatu ere eskaintzak, uzta-zergak, sagardo-anforak, harkoskoak eta harriak. Oso urrutetik ekarritako eskaintzak eta opariak ziren, Ama Lurrari uzten zizkietenak kobaren sarreran, edo barruan, batzuetan.

Burua betetzen zioten pentsamenduak baztertu, eta jaitsieran kontzentratu zen Nash, eskerrak emanez paretak lehoreudelako, sarreratik bi metro eskasera paretak zuen sabel granitiko moduko bati esker, seguru asko, zeinak eragotzi bide baitzuen euri ura barrura sartzea. Hezetasunik ezak ez zuen galarazi, dena den, heriotza gertatu berriaren usain higuingarri ezaguna bere sudurreraino iristea.

—Sumatzen duzu kiratsa? —galdetu zuen Nashek, ahotsa goratuz, zulagailuaren zarataren gainetik entzun zedin.

Gabriel gelditu egin zen, erantzuteko.

—Inguruko artzain batek esan zidan mendian hildako abereak botatzeko ere erabiltzen dela arrakala batzuetan; urrutigabe, ardi bat bota zuten duela pare bat aste.

Nash pentsatzen gelditu zen, sudurra zimurtuta.

—Bi aste... Zer deritzozu? Duela bi aste sarraskiaren usaina hartzen diozu?

Gabrielen ahotsak oihartzuna egin zuen hormetan gora, danbor baten barnealdean bezala.

—Bueno, hor behean zenbateko hezetasuna dagoen, horren arabera da dena. Bi astean, erabat ustelduta izan ditzake zati bigun guztiak edo, aitzitik, ihartuago. Kanpoan baino hamar bat gradu gutxiago izango direla kalkulatzeko dut.

Irtengune harritsua igarota, nahiko zuzenak ziren hormak, arrakala natural bat, izotzaldi batean mendia pitzatu eta bi lauza irregularretan banandu balitz bezala, berrogeita hamar

metroko erorketa askea, hamasei solairuko eraikin bat adina-koa. Usaina gero eta nabarmenagoa zen beherago jaitsi ahala, baina, aldi berean, apurka-apurka galduz joan zen lehen usteltzearen ñabardura sarkorrak, usain lizunago batek ordezkatuak, ile zikinarena eta zoko itxiarena. Nashek bere kaskoko argia beherantz bideratu, eta ardi hila ikusi zuen. Handik ikusgarri ziren atalak, sabelaldea eta begia, hondoratuta eta ihartuta zeuden. Adar handi bat, zuhaixka bat ia, trabeska gurutzatuta zegoen. Gabrielekek, lurreraino iritsi, eta azken bi metroak jaisten lagundu zion. Ingurura begiratu zuten, espazioa argituz eta ardiaren artile lastua ez zapaltzeko kontu handiz.

—Ez zaitez oraindik mosketoitik askatu, ez dugu ziurtasunik gure oinpeko lurra leizearen zorua ote den. Litekeena da mendez mende hona botatako hondakin guztiek solairuarte faltsu moduko bat eratu izana.

Gabrielek salto bat egin zuen, sendotasuna egiaztatzeko, eta, gero, puntzoi tankerako zerbeit sartu lurrean, horma eratzen zuen harkaitzaren aldamenean.

—Bigun dago oinpean, arraroa da —esan zuen Nashek.

—Nabaritu dut, bai; sendoa dirudi, halere —jarraitu zuen Gabrielekek, altimetroa egiaztatuz—. Bat dator laginketarik fidagarrienaren datuekin, laurogeiko hamarkadakoekin, baina batek daki...

Nashek lur harroa haztatu zuen botekin. Makurtu egin zen, artile-xerlo solte bat hartzeko, trinkotu eta barrunbearen erdigunea izan zitekeen tokian pilaturik ikusten zen artiletik.

—Artilearen krisi gogorra gertatu zen laurogeiko urteetan, hutsa ordaintzen zuten eta arazo latza zen paretik kentzea. Babiliteke inguruko abeltzainek arazoa honela konpondu izana —esan zuen Nashek.

Gabrielek mikroari hitz egin zion.

—Mikel, behean gaude. Bidali zunda, linterna handiarekin. Gure azpian, konpaktua dirudi zoruak, lur trinkotuaren eta

harri solteen nahasketa, baina ez dut uste harriak hormetatik askatutakoak direnik. Egingo nuke goitik bota dituztela, enborrak bezalaxe; eta artile mordoa ere badago. —Doitu egin zuen munduko meatzari guztiek airearen kalitatea egiaztatzeko tradizioz erabilitako kriseiluaren garra. Ingurua aztertu zuen, kaskoaren linternarekin argituz—. Airea arnasgarria da, eta zutik egon gaitezke. Espazioa laukizuzen irregular bat da, lau bider sei bat metrokoa. Ez dago ur-arrastorik, baina ardiarena egia zen: hilikia ez dago oso ustelduta; lehorra, gehiago.

Elizondo doktoreak gora begiratu zuen. Haren hatsa gorantz igo zen, ikusgarri egin zen haren kaskoaren argi parean, lurrunezko kiribil batean. Hotz egiten zuen han behean, eta animalia hilaren usaina leuntzen zuen horrek, gutxienez. Adarren eta ardagaiaren artean, igeltsu-mordoiloak eta azuleju hautsiak ikusi zituen, baita garagardo-lata pare bat eta lastaira zahar baten azal marradun ikusgarri bat ere.

—Itxura denez, ez dute hona animaliak bakarrik botatzeko ohitura —esan zuen Nashek.

—Ez, arraioa! Zikina da jendea, gero! Zer da hori? Obrahondakinak?

—Zer ikusten duzue? —entzun zuten Julioren ahotsa irratiz.

Eskuineko oina ardiaren gainetik pasatu, eta beste aldera igaro zen Nash, trabeska gurutzatutako enborrari helduta.

—Bai: hondakinak, lasto hauskorra, lurrustela, zaborra, eta hau, lastaira bat —esan zuen, gainalde hanpatuan hatz bat hondoratuz.

Han goian linterna handiaren metalezko atalak kobako sabel granitikoa nola jotzen zuen entzun zuten.

—Poliki, mutilak; hautsi egingo duzue, bestela —ohartarazi zien Gabrielelek, beren buruen gaineko iluntasunera bideratuz bere argia.

Nashek telefono mugikorra atera, eta argazkiak egin zizkien zaborrari, hormei; adar lodien artean makurtuta, pixka bat

baztertu zuen artile-geruza, lurraren osaera erretratatzeko asmoz. Ile beltzak eta gaztaina-koloreak zeuden —beste animalia batzuen usteltzearen hondakinak, seguru asko—; belar lehorra; hauts zurixka bat, errautsa izan zitekeena; eta bitxien gertatu zitzaiona: lore-girlanda bat, itxura hauskorreko arrosa txiki-txikizkoa. Ez zen haitzuloetan lore-eskaintzak topatzen zituzten lehen aldia, baina hark berri samarra zirudien. Makurtu zen, hura hobeto ikusteko, eta hatzen artean hartu zuen loreetako bat, zeina ukitu orduko desegin baitzen. Kaskoaren argia ez zen nahikoa, baina lortu zuen mugikorrarekin argazki txukun batzuk ateratzea. Gorroto zuen flasha erabiltzea hain espazio ilun eta txikietan. Istant batez itsututa uzten zuen bat-bateko argi distirak, eta itzal bat gelditzen zitzaion, puska batean, begien aurrean dantzan. Apuntatu zuen, beste argazki bat ateratzeko, eta, flasha atera zen momentuan, ohartu zen zerbait zegoela lastairaren azpian.

—Gabriel, lagundu hau mugitzen.

Gabriel zabuka pasatu zen ardiaren ilajearen gainetik, Nashek egin bezala, baina ez zuen eduki hark adinako zortea, eta bizkarreko artilearen parte bat zapaldu zuen. Higuin-keinua egin zuen animaliaaren haragia sentituz larruaren azpian irrist egiten, larrua gelatinaz beterik balego bezala.

Denbora dezente bide zeraman lastairak han, eta, Gabrielekek esan bezala begien bistan urik egon ez arren, haren egitura porotsuak erruz xurgatu zuen hezetasuna. Ez zen handia, baina bustita egon balitz bezainbeste kostatu zitzaien hura mugitzea. Bultza egin zioten, pisuaren eraginez ardi hilaren gainera erortzeko beste.

Kirol-oinetakoak zuriak ziren, eta galtza bakeroak estu-estu eduki zituen hanketako giharrak haien barnean ihartu aurretik. Kirol-jertse zuri bat, liana lodi berde batez eta kolore bereko